

OINARRI ARAUTZAILEAK, DONOSTIAKO ESPARRU ENOGASTRONOMIKOKO AISIALDI ETA TURISMO SEKTOREAREN ENERGIA EFIZIENTZIA HOBETZEKO NEURRIAK EZARTZEKO LAGUNTZA PROGRAMARENAK, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU PROGRAMAK FINANTZATURIK

ATARIKOA

Donostiako Udalak toki entitateen inbertsio jarduketan finantzaketan parte hartzea eskatu zuen, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomiko, sozial eta humanitarioaren ondotik Europar Batasunak onetsi zuen Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan —eta, zehazki, plan horretako 2. azpineurriko 1. inbertsioa izeneko 14. osagaiaren esparruan—.

Kontuan harturik Donostiako Udalaren dirulaguntza eskaera, Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Laguntza emateko Ebazpena (ebazpen horrek Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen du, eta haren bidez ezartzen dira toki erakundeek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 1. inbertsioko 14. osagaiaren esparruan inbertsio jarduerak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak eta autonomia erkidegoetarako ondoriozko banaketa), eta, aintzat harturik, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez) eta Donostiako Udalak Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (Donostia, Esperientzia Enogastronomiko Jasangarria eta Berritzailea) gauzatzeko egindako hitzarmenean ezarritakoa, zeina Europar Batasuneko Next Generation EU Funtsek finantzatzutako 2022 Turismo Enogastronomikoaren Plan Nazionalaren barruko jardura baita. Hala, Donostiako Udalak gauzatu beharreko ekintzak biltzen dira, jardura eta ardatzetan sailkatuta.

Efizientzia energetikoa hobetzeko 2. ardatzaren eta 3. jarduketaren barruan (EFIZIENTZIA ENERGETIKOA HOBETZEA ETA ENERGIA MURRIZTEA PRODUKTU GASTROTURISTIKOAK EGITEKO) ageri da, hain justu, «efizientzia energetikoa hobetzeko eta balio katean energia berriztagarria txertatzeko» jardura.

Aisialdi turistikoa sektore estrategiko bat da, gaitasun handia baitu bisitariak erakartzeko; pisu handia du enpleguan, oso dinamikoa da eta ekarpen handia egiten dio hiriko jardura ekonomikoari (aldi berean, beste sektore batzuentzako diru sarreraren iturria da). Hori guztia dela eta, estrategikotzat jotzen da: 1.460 establezimendu biltzen eta 8.689 lanpostu sortzen ditu (Jardura Ekonomikoen Direktorioa, Eustat, 2023). Donostiak batez ere mikroETeZ (10 langile baino gutxiagoko enpresak) osatutako enpresa ehuna dauka, eta, hortaz, horien hazkundera bultzatzeko erronka daukagu.

Gero eta globalizatuagoa den agertoki batean sektorearen lehiakortasunari eusten jarraitzeko —bereziki kohesio eta jasangarritasun irizpideei jarraikiz eta hiriko eragile publiko eta pribatuekin adostuta eta haien arteko lankidetzan oinarriturik—, apustu gisa ezartzen dira airearen kalitatea hobetzea, deskarbonizazioa, atmosferara egiten diren emisioak murriztea, teknologia garbiagoak erabiltzea eta, halaber, efizientzia energetikoa sustatzea.

Helburu horrekin, Donostiako Udalak, Donostia Sustapenaren eskutik, Next Generation 2022-25 proiektua formulatu zuen, hiria bera eta hiriko enpresak eremu enogastronomikoko aisialdi turistikora egokitzen laguntzeko, etorkizunean ageri den agertoki disruptiboaren eta haren balio berrien aurrean. Finean, abangoardian egon nahi du alderdi horiei dagokienez.

Donostiako Udalak ez du behar adina giza baliabide eta baliabide material aipatutako programa behar bezala garatzeko, eta, horrenbestez, egokitzat jotzen da eginkizun horretarako erakunde laguntzaile bat izendatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horren 2. apartatuan xedatzen denez, erakunde laguntzaileztat hartu ahal izango dira Administrazio Publikoen partaidetza erabatekoa edo nagusia duten merkataritza sozietateak.

Donostia Sustapenak 2023an sendotu egin du estrategia eta kudeaketa-eredu berri bateranzko trantsizioaren aldeko apustua, eta hirian berrikuntzaren erreferentzia bilakatzera bideratu du eredu hori, ardatz gisa harturik Donostiako Berrikuntza Agentziaren rola izatea. Horrek esan nahi du Donostia Sustapenaren apustua dela pertsonen, enpresei eta proiektuei laguntzea abiapuntu gisa harturik pertsonalizazioa, kalitatea eta foku estrategikoa, eta hori guztia hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan egin nahi du.

Bilakaera horri eta markatutako helburuak bete izanari esker, zenbait ildo landu zituen 2023an ostalaritzaren esparruan, sektoreari aurre egin beharreko erronken neurriko laguntza emateko, guztia ere tokiko sare ekonomikoari modu transbertsealean aplikatutako berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoaren barruan.

Hala, sektoreak 400.000 euro baino gehiago izan zituen laguntzatan, Sustapen Planaren esparruan.

Aldi berean, sektoreko 140 enpresa baino gehiago izan ziren beren lehiakortasuna indartzea ahalbidetu zuten zerbitzuen eta/edo laguntzen onuradun, eta, era berean, esparru horretan sektorearekin sortutako jarduerari esker, 20 enpresa proiektu berri baino gehiago sortu ziren, baita 220 lanpostu berri baino gehiago ere.

Aurrekoa kontuan harturik, Donostiako Sustapena SAK esperientzia handiko bitartekoak ditu dirulaguntzen eta laguntzen kudeaketan, bai eta Europako funtsen kudeaketan ere, eta, kontuan izanik haren espezializazio maila, erakunde egokia da erakunde laguntzaile gisa jarduteko.

Programa hau «Donostia, esperientzia enogastronomiko jasagarri eta berritzaile bat» Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planeko jardueren barruan dago (2023-2025), eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planen ezohiko programaren barruan (2022) egikaritua da, esperientzia enogastronomikoetara bideraturik. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan kokatzen da, eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsek, Industria eta Turismo Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatzen dute.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 61.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileek jaso ahal izango dute haien deialdia», eta, hori

kontuan harturik, batera ematen dira ontzat laguntza hauen oinarriak eta deialdia 2025ko ekitaldirako.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.- Erregulazio honen xedea da 2025ko ekitaldirako **dirulaguntzen** oinarri arautzaileak ezartzea eta haietarako deialdia egitea, lehiarik gabeko araubidean, **helburu gisa harturik trantsizio berdea eta jasangarria bultzatzea eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko, eta, horretarako, efizientzia energetikoa lortzeko neurriak ezarri nahi dira alor enogastronomikoko aisialdi turistikoaren sektoreko Donostiako enpresetan.**

2.- Dirulaguntzat jotako funts publikoen diru erabilera, zuzeneko kontraprestaziorik gabea, oinarri hauen 9. artikuluan diruz laguntzeko modukotzat jotako inbertsioak eta gastuak egiteko.

3.- Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzak Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana (**DONOSTIAKO ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRIA ETA BERRITZAILEA**) proiektuaren barruan daude. Hain zuzen ere, Turismo Enogastronomikoaren 2022ko Plan Nazionalaren barruko jarduera bat da —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua—, 14. osagaia, 1. inbertsioa, 2. azpineuria. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen da, eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatua da.

Zehazki, Donostiako Udalaren Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana —hor barruan dago sartuta proiektu hau— Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 218. helburuaren barruan sartzen da (turismoaren jasangarritasuneko planetarako aurrekontua esleitzeari buruzkoa), bai eta 220. eta 221. mugarrien barruan ere (Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak egikaritzeari eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak amaitzeari buruzkoak, hurrenez hurren).

4.- Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio), alde batera utzi gabe aplikagarriak izan daitezkeen zuzenbide nazionalako eta EBko gainerako xedapenak, bereziki Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eta kudeatzeko esparruan onesten direnak. Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berriarazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan

dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

5.- Dirulaguntza lerro hau Donostiako Udalaren 2024-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da, eta dirulaguntza honi dagokion fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du, zeinak ondoren jasotzen baitira.

Helburu estrategikoak: Berrikuntza, ekonomia eta enplegua bultzatzea.

Berriazko helburuak: Aisia turistikoaren sektoreko balio katean efizientzia energetikoa eta energiaren erabilera hobetzea, eta, horri esker, trantsizio energetikoa erraztea eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna hobetzea.

Izena: Donostiako aisia-enpresa turistikoei energia-eraginkortasuna hobetzeko enpresetan neurriak ezartzeko laguntzak. Zenbakia: 80.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN HELBURUA ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK

1.- Programaren helburua da laguntza eskaintzea eremu enogastronomikoaren barneko aisialdi turistikoaren sektorean efizientzia energetikoko neurriak ezartzeko inbertsioak egin ahal izateko, efizientzia energetikoa areagotzeko eta energia berriztagarriak balio katean txertatzeko. Programa hau Donostian kokaturiko aisialdi turistikoaren sektoreko erakundeei dago zuzenduta, eta **sektore horren efizientzia energetikoa hobetzea eta hiri ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea** dira helburuak.

2.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak **30.000 €-koak** izango dira gehienez ere, eremu enogastronomikoaren barneko aisialdi turistikoaren sektorean efizientzia energetikoko neurriak ezartzeak eragindako gastuak estaltzeko. Laguntzen intentsitateari dagokionez, oro har, diruz lagundu daitezkeen gastuen % 70ekoa da, eta % 10 gehiago eman ahalko da, baldin eta enpresa txiki batek, mikroETE batek edo jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen pertsona fisiko batek egiten badu eskaera, guztia ere oinarri arautzaile hauen 9.2 artikulua 2. puntuan zehazten denari jarraikiz.

3- Laguntza hauen inguruabarretan efizientzia energetikoa lortzeak berekin dakar energia kontsumoa murriztea, ingurumena zaintzea, garapen ekonomiko arduratsua eta gizarte ongizatea bermatuko duten jardunbideak hartzea. Hala, lagundu egiten du oreka jasangarria lortzen, eta, aldi berean, aisialdi turistikoko enpresen hazkundera eta ongizate ekonomikoa bultzatzen ditu. Eremu hauetan garatu daitezke neurri horiek:

- Efizientzia energetikoa hobetzeko eta **energia berriztagarriak** erabiltzeko jarduketak, berotzeko, airea girotzeko, hozteko, aireztatzeko eta etxeko ur beroko **instalazio termikoetan**.

1.- Energia konbentzionalaren ordeztu biomasa baliatzea instalazio termikoetan.

2.- Energia konbentzionalaren ordeztu energia geotermikoa erabiltzea (kogenerazio ekipoa instalatzeko gastuak izan ezik).

3.- Energia konbentzionalaren ordeztu eguzki energia termikoa erabiltzea.

4.- Aurreko ataletan jasotako gabeko sorkuntza sistemen efizientzia energetikoa hobetzea:

- Aerotermia instalatzea bero ponpa bidez (ekipo sorgailu elektriko bidez, eta ez erregai fosilak baliatzen dituzten airea giratzeko sistemak).
- Aerotermia instalatzea, kanpoko airea baliatzen duen doako hozte sistemen bidez.
- Aerotermia instalatzea, beroa eta ateratako airea berreskuratzeko sistemen bidez funtzionatzen duena eta hondakin energiak aprobetxatzen dituen.

5.- Instalazio termikoen banaketa, erregulazio, kontrol eta emisio azpisistemen efizientzia energetikoa hobetzea:

- Eraikinetako instalazio termikoetan efizientzia energetikoa hobetzea ahalbidetzen duten jarduketak (banaketa-, erregulazio- eta kontrol-sistemetan, elementu terminaletan eta abarretan).
- Energia kontsumoa monitorizatzeko sistemak, informazioa erabiltzaileei helarazteko gailu digitalen bidez.

- **Argiztapen instalazioen** efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak:

- 6.- Argiak ordeztzea.
- Argien kontrol lokala, urrunekoa edo automatikoa.
- Argiztapen sistema aldatzea eta kontsumoa murriztea.

- **7.- Autokontsumoa eta biltegiatzea** bultzatzeko jarduketak, energia berriztagarriekin (fotovoltaikoa).

4.- Onuradunek aisialdi turistikoaren establezimenduan ezarri beharreko efizientzia energetikoko proiektuak adina eskaera egin ahal izango dituzte.

Dirulaguntza bakarra emango da onuradun bakoitzeko. Aurrekontu soberakin baldin bada edo Donostiako Udalak erabakitzen badu deialdi honetara bideratutako zuzkidura ekonomikoa areagotzea, bigarren dirulaguntza bat eman ahal izango die eskaerak garaiz eta behar bezala egin dituzten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

3. ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

1.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikuluan

xedatutakoaren arabera, Donostiako Sustapena SA udal sozietatea erakunde laguntzailatzat hartuko da oinarri hauetan jasotako laguntzak kudeatzeko, eta Donostiako Udalaren eta erakunde horren arteko lankidetzak hitzarmenean zehaztuko dira horretarako baldintzak.

2.- Eginkizun hori betetzeko, Donostia Sustapenak, dirulaguntzak izapidetzen dituen erakunde gisa, «leihatila bakar» gisa jardungo du, bai eskabidea egiteko, bai dagokion dokumentazioa jasotzeko eta izapidetzeko.

4. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren dirulaguntzak, oinarri horietan xedatutakoaz gainera, deialdiaz eta dirulaguntza emateko ebazpenaz arautuko dira, arau hauetan xedatutakoaren arabera:

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema konfiguratzeko duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia erkidegoko eta tokian tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagaien neurrien mugari eta helburuen betetze mailaren eta aurrekontu eta kontabilitate betearazpenaren jarraipena egiteko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkak izateko arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.
- Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpena, Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez ezartzen baitira jarduketak finantzatzeko kredituaren banaketa-irizpideak eta autonomia-erkidegoetarako ondoriozko banaketa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez) eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmena, Euskadiko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzeko.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko akordioa argitaratzeko. Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez egin zen publiko (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).
- Erabakia, Gobernu Kontseiluarena, 2022ko martxoaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen den *luzurraren, interes gatazkaren,*

finantzaketa bikoitzaren, estatu laguntzen eta ingurumenerako kalte ez-nabarmenen aurkako betekizunak betetzeko neurrien Plana onesten duena (Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua, zeinaren bidez publiko egiten baita aipaturiko erabakia; EHAA, 74. zk., 2022ko apirilaren 13koa).

2.- Halaber, aplikatzekoak izango dira, batetik, Donostiako Udalaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 15ean onetsia, eta plan horretatik eratorritako betebeharrak, eta, bestetik, Donostia Sustapenaren Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onetsitako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana.

3.- Era berean, erakunde onuradunek nahitaez bete beharko dituzte dirulaguntza ematen duen administrazioak ezarritako betebeharrak guztiak, bai eta estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek ezarritakoak ere. Orobat, betetzekoak izango dira laguntza hauen onuradun izategatik finantzaketaren jatorriak ezartzen dituen gainerako eskakizunak ere.

5. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen laguntza horiek izapidetzeko eta emateko, aplikatzekoak izango da 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko. Era berean, aplikatzekoak izango dira aplikatu beharreko gainerako araudiak ere.

2.- Ondorio horietarako, EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (150.000 €) bideratuko dira programara, efizientzia energetikoko neurrien ezarpena finantzatzeko, betiere Next Generation funtsek finantzatuta.

3.- Donostiako Udalak berea du laguntza programa honetara bideratutako zenbatekoa edo finantzatu beharreko eskabideen kopuru osoa aldatzeko eskubidea. Kasu horretan, beharrezko jakinarazpenak egingo eta iragarkiari argitaratuko ditu, interesa izan dezaketen guztiek horren berri izango dutela bermatzeko.

4.- Oinarri eta deialdi honetan araututako laguntzak gauzatzeko eskuragarri dauden funtsek ondoren agertzen diren etiketa klimatikotik eratorritako obligazioak bete beharko dituzte. Bestalde, ez dute etiketa digitalik.

	Etiketa klimatiko	Etiketaren deskribapena	Ekarpen klimatikoa
1.- Energia berriztagarria: biomasa	30	Energia berriztagarria: biomasa	% 40

2.- Energia berriztagarria: geotermia eta aerotermia	032	Beste energia berriztagarri batzuk (geotermikoa barne)	% 100
3.- Energia berriztagarria: eguzki-energia	029	Energia berriztagarria: eguzki-energia	% 100
	024	Efizientzia energetikoa eta erakustaldi proiektuak ETEetan, eta laguntza neurriak	% 40
4.- Sorkuntza sistemen efizientzia energetikoa hobetzea. Aerotermia	024	Efizientzia energetikoa eta erakustaldi proiektuak ETEetan, eta laguntza neurriak	% 40
5.- Instalazio termikoen banaketa, erregulazio, kontrol eta emisio sistemen efizientzia energetikoa hobetzea:	024	Efizientzia energetikoa eta erakustaldi proiektuak ETEetan, eta laguntza neurriak	% 40
6.- Argiztapen instalazioen efizientzia energetikoa.	025	Lehendik dauden higiezin efizientzia energetikoa berritzea, erakustaldi proiektuak eta laguntza neurriak.	% 40
7.- Autokontsumoa eta biltegiatzea, energia berriztagarriekin (fotovoltaikoa).	029	Energia berriztagarria: eguzki-energia	% 100

6. ARTIKULUA. ONURADUNAK

1.- Laguntzaren onuraduntzat hartuko da dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatu behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak guzti-guztiak betetzen baditu.

2.- Laguntzen onuradunak jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak izango dira, pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, baita aurrekoen nortasuna ez duten taldeak ere, baldin eta oinarriotan zehaztutako eskakizunak biltzen dituzten ordenamendu juridikoaren arabera eratuta badaude. Bazterturik geratzen dira ondare sozietateak; hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

3.- Oinarriotan zehazten dira laguntzak eskatzeko bete behar diren eskakizunak, baita eskakizun horiek egiaztatzeko modua ere; halaber, nahitaez bete beharko da Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako guztia, zeina berariaz aplikatzekoa izango baita ondore hauetarako.

4.- Horrenbestez, pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dute laguntza jaso:

- a) Ez baldin badituzte egunean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean den legeriak ezartzen duen moduan.

- b) Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuta badaude, edo horretarako ezgaitzen dituen legeko debekuren baten eraginpean badaude, barnean harturik sexu diskriminazioa egiteagatik zigortu dituztenak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; era berean, ezingo dira izan laguntza eta dirulaguntza horien onuradun sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak, betiere zehapen horretan ezarritako epean. Era berean, ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik berdintasun plan bat indarrean ez daukaten enpresek, baldin eta estatuko araudiaren arabera horretara beharturik badaude, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu ezarri dituztela neurriak sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta halako egoerei aurre egiteko, guztia ere estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera. Dirulaguntza hau eskatu nahi duten enpresek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, zeina 10. artikuluan baitago zehaztuta.
- c) Zorrak baldin badituzte Donostiako Udalarekin edo/eta Donostia Sustapenarekin.
- d) Itzultzeke baldin badituzte, erabat edo partzialki, aurrez eskuratutako laguntzak, harik eta egiaztatu arte bueltatu dutela itzuli beharreko zenbatekoa.
- 5.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko. Gainera, administrazio jarduleak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.
- 6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du jarraian zehazten den informazioa administrazio publiko eskudunekin, prozedura honetako ebazpena emateko eta ordainketak egin ahal izateko:
- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
 - Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.
 - Ekonomia jardueraren gaineko zergaren (EJZ) historikoa.
 - Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.

7. ARTIKULUA. ONURADUNEN ESKAKIZUNAK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO

- 1.- Deialdian parte hartu nahi duten onuradunek bi baldintza hauetako bat bete beharko dute:

- a. Pertsona fisiko edo juridikoa izatea, pribatua, eta Donostiako udal mugartean edukitzea lantokia eta jarduera, gainera bere jarduera eremu enogastronomikoko aisialdi turistikoa garatu behar du.
- b. Eremu enogastronomikoko, aisialdi turistikoa sektoreko elkarte edo fundazio adierazgarria izatea. Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan inskribatuta egon beharko dute. Era berean, Herritarren Erakundearen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute —baldintza horren orde, salbuespen gisa, Donostian jardueraren bat egiten duten elkarte eta fundazioen kasuan onartuko da hasieran aipatutako erregistro publikoetan inskribatuta egotea, baldin eta haien presentzia instituzionala interesgarritzat jotzen bada udalerrirako—.
- 2.- Ez dira izango onuradun mendeko entitateak, ez eta sektore publikoko entitateen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen % 25etik gorako partaidetzapekoak ere (sektore publikoko entitatetzat hartuko dira sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan bildutako entitateak; lege haren bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira emakida kontratuak esleitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).
- 3.- Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen erakunde laguntzailea den aldetik, eskubidea du beharrezkotzat jotzen duen informazio eta ekarpen guztiak eskatzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatze aldera.

8. ARTIKULUA. EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO NEURRIAK EZARTZEKO PROIEKTUETARAKO BALDINTZAK

- 1.- Dirulaguntza hauek aisialdi turistikoa sektorearekin lotutako enpresek edo elkarteek eremu enogastronomikoa egindako inbertsioak eta gastuak laguntzera daude bideratuta, edo esparru enogastronomikoa barneko aisialdi turistikoa sektoreko enpresa eta erakundeentzako proiektuak egiten dituztenentzat, betiere Donostian kokaturiko establezimenduetarako eta efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak hartzeko, oinarri hauen 2. artikuluan deskribatzen diren esparruetan.
- 2.- Efizientzia energetikorako diruz lagundutako neurriak Donostiako udal mugartean ezarri beharko dira.
- 3.- Baldintza hauek bete beharko dira, jarduketa mota bakoitzerako aplikagarriak diren neurrian:

- Beroa **biomasa** baliatuz sortzen duten instalazioak:
 - Programa honen ondorioetarako, biomasa nekazaritza jardueretatik sorturiko produktu, hondakin eta hondar biologikoen parte biodegradagarria da, barnean harturik landare eta animalia jatorriko substantziak, basogintzakoak eta haiei lotutako industrietakoak, baita arrantza eta akuikulturakoak ere.
 - Errekuntza ganberako biomasaren jarduketa tipologia ekipo termiko gisa definitzen da, eta han eratzen da airea edo ke beroak sortzeko errekuntza, ondoren lehorgailu, galdara, labe edo bestelako gailuren batera akoplatu ahal izateko, baita

ekipo osagarrietara ere. Errekuntza ganberek izaten dituzten piezen artean, hauek ageri dira: barruko estaldura erregogorra, aireztapen sistema, parrilla, zikloiak, kolektorea, hodia, gelaurrea, errautsak erauzteko sistemak eta abar.

- Biomasa erabilia, gutxienez % 80an murrizten dira berotegi efektuko gas emisioak, betiere berotegi efektuko gasak murrizteko metodologiari eta 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren VI. eranskinean ezarritako erreferentziatzko erregai fosil erlatiboari dagokienez. Alderdi hori ziurtatzeko, emisioak murrizten direla egiaztatuko duen txosten bat aurkeztu beharko da, teknikari eskudunak sinatuta.
- Jarduerak bermatu behar du biomasak betetzen dituela berotegi efektuko gasen emisioen jasangarritasunari eta aurrezpenari buruzko irizpideak, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren 29. artikulutik 31. artikulura bitartean ezarritakoak, eta betetzen dituela, orobat, arau beraren 26. artikuluan elikagaiekin eta pentsuekin egindako bioerregaiei buruzkoak ere. Era berean, nahitaez bete beharko dira haiekin lotutako ekintza eskuordetuak eta betearazpenekoak.
- Berokuntza lokaleko aparatuek aurrealdea itxita eduki beharko dute.
- Aplikazio ez-industrialeko jarduketak, berogailu lokaleko aparatuek edo 1 MW baino gutxiagoko galdarak barnean hartzen dituztenak:
 - Ekipoaren fabrikatzaileak egiaztatu beharko du betetzen dituela urtaroko efizientzia energetikoaren eta erabiltzen den erregaiaren emisioen baldintzak, eta baldintza horiek ezingo dira izan indarrean dagoen Ekodiseinu Erregelamenduan definitutakoak baino laxoagoak —hain zuzen ere, Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamendua edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamendua, segun eta zein dagokion—, nahiz eta haren aplikazio eremutik kanpo egon.
 - Onuradunak behar besteko dokumentu erregistroa izango du, ziurtatu ahal izateko ekipoan erabilitako erregaiak badaukala egiaztatutako erakunde independente batek emandako ziurtagiri bat, A1 mota UNE-ENISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera betetzeari buruzkoa, UNE-EN-ISO 17225-3 arauaren A1 motakoa, UNEEN-ISO 17225-4 arauaren A1 motakoa, UNE-164003 arauaren A1 motakoa edo UNE164004 arauaren A1 motakoa. Erregai horiekin funtzionatzen duten ekipoak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz. Bost urtez gordeko da erregistro hori, bioerregaiaren albaraneekin edo salmenta fakturekin batera.
 - Edozein izanik ere haien potentzia, prebentziozko mantentze lanetarako programa bati jarraituz mantendu beharko dira. Hala, eragiketek eta aldizkakotasunak nahitaez egokitu beharko dute Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamendua onesten duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren IT 3.3. taulan (Prebentziozko mantentze-lanen eragiketak eta aldizkakotasuna) aurreikusten denera. Era berean, ekipoak energia kudeatzeko programa bat izango du, beteko duena Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamendua onesten duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren IT.3.4 atala.

- **Aeroterminia** instalazioak:

- Bero ponpa bidezko aeroterminia instalazioek 2,5etik gorako batez besteko urtaro errendimendua izan beharko dute.
- Instalatu beharreko ekipoa efizientzia energetikoaren irizpideak bete beharko ditu, 2009/125/EE Zuzentarauari jarraikiz (erantsi ekipoa homologatzeko fitxa teknikoa).
- Gas hozgarriaren berotze globalerako potentzialak (GWP, *Global Warming Potential*) ez du izan behar 675 baino handiagoa (erantsi gas hozgarriaren fitxa teknikoa).
- 12 kW-eko edo gutxiagoko edukiera nominala duten airea-aire boro ponpen kasuan, barrualdeko eta kanpoaldeko potentzia akustikoaren mailak 2009/125/EE Zuzentaraia garatzen duen Batzordearen 206/2012 (EB) Erregelamenduan ezarritako mugaren azpitik egon beharko du (erantsi ekipoa homologatzeko fitxa teknikoa).

Ez dira izango laguntza programa honen xede:

- Eskatutako gutxieneko errendimenduak lortzen ez dituzten boro ponpak eta errendimenduak ziurtatzen ez dituztenak.
- Hezetasuna kentzeko unitate gisa funtzionatzea helburu duten boro ponpak.
- Hotz industrial sortzeko ekipoa; hau da, hozteko ganbarei eta elikagaiak edo bestelako produktuak biltegitratzeko edo izozteko hozkailuei hotza ematen dieten hozteko sistemak; itsasoko, lurreko edo aireko garraioan kokatutako hozteko sistemak; zerbitzari gelak eta *data center*ak.
- Erregai fosilen bidez girotzeko boro ponpak.

- **Energia geotermikoko** instalazioak:

- Bero ponpa bidezko instalazio geotermikoen 2,5etik gorako batez besteko urtaro errendimendua izan beharko dute.
- Akuiferoei eragiten dieten geotermia jarduketarako, bermatuko da betetzen dela ur politikaren esparruan jarduteko Europar Batasuneko esparrua ezartzen duen urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentaraia, ziurtatzeko akuiferoei ez zaiela egiten kalte nabarmenik. Bermatuko da, orobat, zaintzen dela uraren kalitatea eta saihestu egiten dela estres hidrikoa.

- **Eguzki energia termikoko** instalazioak:

- Eguzki instalazio termikotzat hartzen dira prozesu kate hau bermatzen duten osagaien multzoa: eguzki erradiazio intzidentea eguzki kaptadore termikoen bidez atitzea (aire kaptadoreak, kontzentrazio kaptadoreak, kaptadore lauak, hibridoak, huts hodiak...), fluido bat berotzea zuzenean energia termiko erabilgarri bihurtzeko, bildutako energia termikoa truke edo metatze sistemara garraiatzea zirkuitu baten bidez, eta, ondoren, kontsumo puntuetan zuzenean boro edo hotz gisa erabili ahal izatea, xurgatzeko, adsortzioko eta abarretarako makinak bidez.

- Instalazio prozesuan, neurri egokiak hartu beharko dira likido hozgarria isurtzeko arriskua minimizatzeko, kontuan harturik azaleko eta lurpeko urak kutsa ditzakeela.

Hartu beharreko neurriak obrak egitea eskatzen badu, baldintza hauek bete beharko dira, aplikagarriak diren heinean, eta, jarduketa amaitzen denean, egiaztatu egin beharko dira, dagozkion ziurtagirien edo egiaztagirien bidez:

- Hondakinak kudeatzeko azterlanean, alderdi hauek jasoko dira:
 - Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da eraikuntza tokiko jarduketetan sortzen diren eraikuntza eta eraipen hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kanpo utzita); horren barruan sartzen da, orobat, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak baliatzea betelane tarako, hondakinen hierarkiari ez ezik EBko eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko Protokoloak dioenari ere jarraikiz.
 - Eraikuntzarekin eta eraipenarekin lotutako prozesuetan, mugatu egingo da hondakinen sorrera, EBko eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknika onenak kontuan hartuta, eta gaikako eraispina erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko; horretarako, materialak gaika ezabatuko dira eta, orobat, eraikuntza eta eraipen hondakinetarako eskuragarri dagoen sailkapena baliatuko da.
- Lurzorua eta uraren kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko prebentzio neurriak hartuko dira (ur eta itsas baliabideak), bai eta obra fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murriztera bideratutakoak ere.

4.- Balorazio teknikoa.

Proiektuak ebaluatzeko garaian, aintzat hartuko da eremu enogastronomikoaren barneko aisialdi turistikokoaren sektoreko enpresaren efizientzia energetikoa hobetzeko gaitasuna zehatz eta nabarmena frogatu ahal izatea. Egokitzen joko dira neurri eraginkorrak eta errealistak aurkeztu dituzten proposamenak, eta, zehazki, praktika efizienteagoak eta jasangarriagoak hartzen laguntzen dutenak. Ontzat eman ahal izateko, frogatu beharko dute proiektuek inpaktu positiboa dutela efizientzia energetikoaren arloan.

Proiektuak balorazio irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

Kontuan hartuko dira proposamen teknikoaren kalitatea, garrantzia, zehaztasuna eta bideragarritasuna, bai eta deialdiaren helburuarekiko egokitasuna ere. Zehazkiago:	60 puntuak
• Garrantzia: proiektua deialdiaren xede eta helburuetara behar	

bezala egokitzea. (25 puntu) • Zehaztasuna: aurkeztutako proposamenaren xehetasuna, helburuak, testuingurua, beharra, adierazleak eta inpaktua. (25 puntu) Inpaktua honela neurtuko da: ○ Inbertsio proiektuetan, irizpide horren aplikazioa lortutako efizientzia energetikoaren hobekuntzan oinarrituko da. ○ Planak, diagnostikoak, azterlanak eta prestakuntza idaztea helburu duten eskaeren kasuan, proposamenaren irismenaren (transbertsalitatea) eta anbizio mailaren arabera baloratuko da irizpide hori, horrek efizientzia energetikoan duen eragina kontuan hartuta. • Bideragarritasuna: proiektua kudeatzeko eta gauzatzeko plan egokia izatea. (10 puntu)	
Aurrekontu garapena eta bideragarritasun ekonomikoa: aurrekontu banakaturak, gastuaren proportzionaltasuna emaitzarekiko, gobernantza azpikontratazioen kasuan...	35 puntu
Proiektuan genero ikuspegia txertatzea: proiektua gauzatzen duen plantillari berdintasunaren arloan gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa.	5 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100 puntu

Eskaera bat hautatu ahal izateko gutxienez 60 puntu lortu beharko dira; beraz, kanpoan geratuko dira gutxieneko puntuazioa baino txikiagoa lortzen duten proiektuak.

9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

9.1 Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.- Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira laguntzaren xede den jarduketan tipologiarekin zerikusia dutenak, eta, zehazki, honako hauek:

- Kanpoko aholkularitza, efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak ezartzen laguntzeko.
- Proiektu teknikoak idazteko kostuak.
- Enpresaren efizientzia energetikoa hobetzeko ekipamendua erostea.
- Ekipo berriak instalatzeko eta lehengoak desmuntatzeko lanak egiteko beharrezko egikaritze kostuak.
- Efizientzia energetikoa hobetuko duten instalazioak egiteko obra zuzendaritza, ingeniariaritza eta legeztatzeak.

- Kanpoko adituek egindako txostenak, ziurtagiriak eta auditoriak.
- Tipologia bakoitzean beharrezkoak diren beste partida espezifiko batzuk, betiere behar bezala justifikatuta badaude.
- Negozioaren efizientzia energetikoa hobetuko duten prozesuak edo neurriak errazteko tresna teknologikoak eta/edo plataformak erostea edo garatzea.
- Proiektuari lotutako langileen prestakuntza espezializatua, proiektua abian jartzea-rekin eta erabiltzearekin lotutako gaietan, bai prestakuntza gastuak, bai aholkularitza espezializatuko gastuak.

2.- Diruz lagundutako gastuen eskuratzeko kostuak ez du gaindituko inola ere merkatuko balioa.

3.- Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarri arautzaileotan ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak.

4.- Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

5.- Ezingo dira finantzatu tankera honetako gastuak:

- Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua, eta isunak.
- Kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboei lotutako edozein gastu, nahiz eta beharrezkoak izan baimenak edo lizentziak lortzeko.
- Gastu errepikariak edo estrukturalak, eta, bereziki, herri administrazioetako langile gastuak; izan ere, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamenduaren 5. artikulua xedatzen du mekanismoaren laguntzak ez dituela ordeztuko estatuko ohiko aurrekontu gastuak, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.
- Eskatzaileak izenpeturiko aseguruak.
- Zaintza eta segurtasuna, obra gauzatzen den bitartean eta harik eta abian jarri arte.
- Edozein finantza kostu.
- Zigor penalei lotutako kostuak eta prozedura judizialen gastuak.
- Sistema eragileetarako eta bulegotika aplikazioetarako lizentziak.
- Administrazioaren jarduketan edo gastuen alorreko edozein eragiketa eta mantentze gastu.
- Gauzatan egindako ordainketak.
- Enpresan ohiko edo errutinazko jarduerak gauzatzea helburu dutenak, hau da, jasangarritasunaren alorrean hobekuntza nabarmenik ez dakartenak, betiere egungo egoerarekin alderatuta.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak; beraz, ez dira onartzen barne fakturazioko prozesuak.
- Kontabilitateko, liburu eramailtzako, auditoretzako eta aholkularitza fiskaleko ohiko jarduerak.
- Ohiko material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.

- Ohiko gastuak eta, bereziki, argiaren, uraren eta komunikazioen gastuak (telefonoa eta interneta).
- Interesak, errekarquak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari tiketak, dietak, kilometroak, gasolina, eta abar.
- Enpresako langileen soldatak eta ordainsariak.
- Autonomoen kuotatik eratorritako gastuak.

Ez dira izango finantzarriak, orobat, Europako Batzordeak ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioarekin bat ez etortzeagatik finantzaezintzat jotako jarduerak (DNSH ingelesez, *Do No Significant Harm*), Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren eranskinean jasotzen den bezala¹ —horien artean daude erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien ondorengo erabilera barne, elektrizitatea eta/edo beroa gas naturala erabiliz sortzearekin zerikusia duten proiektuak izan ezik, bai eta horiei lotutako garraio eta banaketa azpiegiturarekin zerikusia dutenak ere, betiere Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioarekin bat²—. ii) EBko isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren esparruko jarduerak, baldin eta jarduera horiekin lotuta aurreikusten bada berotegi-efektuko gasen isurpenak ez direla egongo dagozkion erreferentzia-parametroen azpitik; iii) hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenean kalteak eragin ditzakeen jarduerak.

Estatuko eta EBko ingurumen-legeria betetzen duten jarduerak soilik jaso ahal izango dute laguntza.

6.- Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

9.2. Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

1.- Laguntzaren zenbatekoaren gehieneko intentsitateari dagokionez, oro har, **diruz lagundu daitezkeen gastuen % 70ekoa izango da, eta % 10 gehiago eman ahal da, baldin eta enpresa txiki batek, mikroETE batek edo jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen pertsona fisiko batek egiten badu eskaera (artikulu honen 2. puntuan deskribatuak).** Eskaera bakoitzeko, ezingo dira gainditu HOGEITA HAMAR MILA EURO (30.000 €).

2.- Enpresa txikitzat jotzen ditugu baldintza hauek betetzen dituztenak:

- a. Pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, eskaera egiteko unean enpresa txiki izatea. Enpresa txikitzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen dituztenak.

¹https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:4f067743-ceb8-11eb-ac72-01aa75ed71a1.0002.02/DOC_2&format=PDF

²<https://www.boe.es/doue/2021/058/Z00001-00030.pdf>

I. Ustiapen ekonomiko bat gauzatzea.

- II. Enpresaren aktiboa edo eragiketen bolumena ez izatea HAMAR (10) milioi euro baino handiagoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean zehazten den moduan.
- III. Langile taldea ez izatea batez beste 50 pertsonatik gorakoa.
- IV. Ez edukitzea aurretik zehaztutako eskakizunen bat betetzen ez duten enpresen % 25etik gorako partaidetzarik, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta ez badira arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak, zeinei aplikatzekoa izango baitzaie aurretik aipatutako foru arau horretako IV. kapituluan ezarritako araubide berezia.

Merkataritza Kodearen 42. artikulua zehaztutako moduan, entitatea sozietate talde bateko kide denean, adierazitako langile taldearen neurriak talde horretako erakunde guztiei egingo die erreferentzia.

3.- Inoiz ez dira joko diruz laguntzeko moduko gastutzat balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

4.- Ordaindutako zenbatekoa ez da izango inoiz oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu eta justifikatutako gastu edo inbertsioen zenbatekoa baino handiagoa.

5.- Onartutako efizientzia energetikoko proiektuak gauzatzeko epea **2023ko irailaren 1etik dirulaguntza justifikatzeko gehieneko egunera artekoa izango da.**

6.- Justifikatutako gastu guztiak laguntza justifikatzeko azken eguna baino lehen ordaindu beharko dira.

7.- Txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratze ordainagiriarekin egindako ordainketen egiaztagiria baino ez dira onartuko. Egiaztagiri horietan, eragiketari buruzko informazioa zehaztu beharko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez da onartuko banku mugimenduen zerrendarik onartuko, ez eta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

Fakturek onartuak izan daitezen Europako Next Generation EU funtsek finantzatuak direla aipatu beharko du fakturaren kontzeptuaren hasieran, «Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU» adierazpenaren bidez.

8.- Donostiako Udalak, eskatzaile bakoitzeko, bi dirulaguntza eman ahal izango dizkio bi proiektu aurkezten dituzten eskatzaileei, betiere proiektu bakoitzak oinarri arautzaile hauetako baldintzak betetzen badituzte.

10. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru

sarrera edo baliabideekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako inbertsio proiektuek jaso dezakete Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu estaltzen programa honen dirulaguntzak finantzatutako kostu bera. Muga horretara iritsiz gero, soberako zenbatekoan murriztuko da deialdi honetan emandako laguntza.

2.- Onuradunak organo emaileari jakinarazi beharko dio diruz lagun daitezkeen programak finantzatzeko jasotako laguntza guztiei buruzko informazioa, izan Europako Erkidegokoak, izan bestelakoak, betiere finantzaketa bikoitzaren prebentzioaren printzipioa errespetatuz. Jakinarazpen horrekin batera, dagokion esleipena edo ukapena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.- Agindu honetan ezarritako laguntzek Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EE) ezarritako *de minimis* arauak errespetatuko dituzte (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

4.- Oinarriotan adierazitakoarekin bat, laguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

11. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauen iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratu —eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) horien laburpen bat publikatu— eta hurrengo egunean hasiko da, harik eta baliabide ekonomikoak agortu arte, oinarriotako 5. artikuluan jasotako moduan —kasu horretan, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da baliabideak agortu direla—, edo, bestela, deialdia amaitu arte, hau da, **2025eko ekainaren 30era arte**.

2.- Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio edo kontsulta egiteko, 943 482 800 telefono zenbakira dei daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatzi, honako gai hau adieraziz: «**Efizientzia energetikoko laguntzak**». Donostia Sustapenaren webgunean adieraziko da publikoari erantzuteko ordutegia.

3.- Onuradunek establezimenduan ezarri beharreko efizientzia energetikoko proiektuak adina eskaera egin ahal izango dituzte. Diruz laguntzea nahi duten efizientzia energetikoko proiektu bakoitzeko, eskaera bat egin beharko dute.

Dirulaguntza bakarra emango da onuradun bakoitzeko. Aurrekontu soberakin baldin bada edo Donostiako Udalak erabakitzen badu deialdi honetara bideratutako zuzkidura ekonomikoa areagotzea, bigarren dirulaguntza bat eman ahal izango die eskaerak garaiz eta behar bezala egin dituzten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

4.- Laguntza ekonomiko hori eskatzeko interesa duten enpresa edo erakunde guztiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio administratiboa

- 1) **Eskaeraren eranskina. (1. eranskina).**
- 2) Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen **NANa**.
- 3) Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen **IFKren** kopia, eta, hala egokituz gero, ahalduaren NANa, ordezkari izateko ahalordeekin batera.
- 4) Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen **banku datuen eranskina (2. eranskina)**, dagokion banku entitateak zigilatuta, edo banku dokumentu baliokidea.
- 5) **Irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioek**, gainera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - Dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, halakorik balitz.
 - Erakundearen estatutuen edo araudiaren fotokopia, behar bezala zigilatuta eta sinatuta.Agiri horiek erakunde eskatzaileak interesgarritzat jotzen duen beste edozeinekin osatu ahal izango dira.
- 6) Esku hartzen duten administrazio publikoen artean datuen lagapena eta datu horien tratamendua onartzea, funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, betiere Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruzko 2021/241 EB Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera (**3. eranskina**).
- 7) Erantzukizunpeko adierazpena, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoari buruzkoa. (**4. eranskina**).
- 8) Onuradunaren benetako titulartasunaren identifikazioa. Identifikazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuak definitzen duen zentzuan egingo da, betiere irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. (**5. eranskina**).

Nolanahi ere, organo instrukzio egileari ahalmena ematen zaio programan parte hartzen duten pertsonen benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatzeko pertsona horiei, betiere Zerga Administrazioako Estatu Agentziak informaziorik ez badu eta hala adierazi badio MINERVA egiaztapen sistematik eratorritako bandera beltzaren bidez. Informazio

hori instrukzio organoari aurkeztu beharko zaio, informazio eskaera egiten denetik 5 egun balioduneko epean. Informazio hori adierazitako epean ematen ez bada, prozeduratik kanpo geratuko da.

- 9) Deialdi honetako 4. artikuluko 2. puntuan jasotako iruzurraren aurkako planak baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzen direla adieraztea. **(6. eranskina)**.
- 10) Administrazioetik kanpoko langileen interes gatazkarik ezaren adierazpena **(7. eranskina)**.
- 11) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena (8. eranskina) eta, kasuak hala eskatzen badu, Berdintasun Plana.
- 12) Berariazko sarbide baimena ematea, bermatu ahal izateko Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek baliatzen dituztela beren kontrol eskumenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 129 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. **(Eskabide inprimakia)**
- 13) *De minimis* laguntzen txostena. Webgune honetan lortzen da: <https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNSCRT&TA=ANO>
- 14) Erantzukizunpeko adierazpena, kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioari buruzkoa (*DNSH, Do No Significant Harm*), betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluan 6. apartatuan ezarritako zentzuan, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onetsitako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoaren arabera eta eskatzaileak behar bezala beteta. **(9. eranskina)**.
- 15) Erantzukizunpeko adierazpena, finantzaketa bikoitzik ez dela adierazten duena. **(10. eranskina)**

Dokumentazio teknikoa:

- 16) Efizientzia energetikoko proiektuaren **memoria teknikoa**.

Deskribapen teknikoa. Eremu enogastronomikoaren barneko aisialdi turistikoko enpre-setan efizientzia energetikoa hobetzeko neurrien esparruan egin beharreko jarduketaren memoria teknikoa, jarraian zehazten diren atal hauek barnean hartuta:

1. Efizientzia energetikoko proiektuaren izenburua.
2. Proiektuaren eta helburuen deskribapen laburra.
3. Testuingurua.

4. Hartuko diren efizientzia energetikoko neurrien deskribapen zehatza, proiektua deialdiaren helburuetara behar bezala egokitzen ote den jakiteko. Fase nagusien deskribapena jaso beharko du (halakorik izanez gero). Proiektuak obra zibila behar badu, eraikuntza eta eraispén hondakinak nola kudeatuko diren jaso beharko da memoria teknikoan.
5. Inpaktua. Hartutako neurriek zenbateraino hobetuko duten enpresaren efizientzia energetikoa. Energia primario ez-berriztagarriaren murrizketa eta CO₂ emisioak kalkulatzea.

Proiektuan edo memoria teknikoan, gainera, alderdi hauek ere jasoko dira:

1. Biomasa jardueretarako, agiri hauek sartu beharko dira:

- Erabiliko diren erregai guztiek berotegi efektuko gasen emisioak % 80 edo gehiago murrizteko balio lehenetsia dutela adierazteko agiria, 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren VI. eranskinean beroa sortzeko adierazitako balioak kontuan hartuta; horretarako, kontuan hartuko dira ekoizpen sistema eta lehenetsitako balio hori zehazten duten gainerako baldintzak, eta, horrekin batera, erregaiaren edo erregaien deskribapena eta lehenetsitako balioa edo balioak zehaztu beharko dira. Erabiliko diren erregaletako batek ez badu betetzen aurreko baldintza, teknikari eskudun batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako memoria bat aurkeztuko da. Memoria horretan, justifikatu beharko da, proiekturako aurreikusitako baldintzetarako eta aipatutako VI. eranskineko metodologiaren arabera, erregai horretarako berotegi-efektuko gasen murrizketa % 80koa edo handiagoa dela.
- Erregaiak: 1 MW baino gutxiagoko instalazioetarako, erabili beharreko erregaiaren informazioa UNE-EN-ISO 17225 arauaren, UNE 164003 arauaren edo UNE 164004 arauaren arabera, eta 1 MW-eko edo hortik gorako instalazioetarako, berriz, ez bada arau horretan jasotako erregai bat, deskribatu egin beharko da.
- Berokuntza lokaleko aparatuak edo erabilera ez-industrialetarako 1 MW-tik beherako galdarak sartzen badira, ekipoaren fabrikatzaileak egiaztatu beharko du betetzen dituela erabiltzen den erregaiaren urtaroko efizientzia energetikoaren eta emisioen baldintzak. Baldintza horiek ezingo dira izan indarrean dagoen Ekodiseinuko Erregelamenduan definitutakoak baino laxoagoak —Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamenduan, edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamenduan, segun eta zein dagokion—, nahiz eta erregelamendu horren aplikazio-eremutik kanpo egon. EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA, 57. zenbakia, 2022ko martxoaren 21a, astelehena, 2022/1320 (32/42) 30
- Tokiko berokuntza aparatuak edo 1 MW-tik beherako galdara ez-industrialak sartzen badira, onuradunak adierazpen bat aurkeztu beharko du. Adierazpen horretan, konpromisoa hartu beharko du ekipoan erabilitako erregaiak badaukala egiaztatutako erakunde independente batek emandako ziurtagiri bat, A1 mota UNE-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera betetzeari buruzkoa, UNE-EN-ISO 17225-3 arauaren A1 motakoa, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren A1 motakoa, UNE-164003 arauaren A1 motakoa edo UNE-164004 arauaren A1 motakoa. Halaber, konpromisoa hartuko du dokumentu erregistro bat bost urtez

gordetzeko, bioerregaiaren albaranekin edo salmenta-fakturekin, aurrekoa egiaztatu ahal izateko.

- Kasuak hala eskatzen badu, ordeztutako ekipoetan erabilitako potentzia eta erregaia.

Aurrekontu banakatua.

Hornitzailearen edo hornitzaileen aurrekontua.

Aurreko apartatuetan adierazitako dokumentaziorako, eskabidearekin batera dagozkion eranskinak aurkeztu beharko dira. Eranskinak osorik bete beharko dira. Sinadura behar duten agiriak elektronikoki sinatuta joango dira.

5.- Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

6.- Donostia Sustapenak beharrezko informazio guztia eskatu ahal izango du oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

7.- Agiriak aurkezteko epeak betetzen ez badira edo oinarri hauetan aurreikusitako beste edozein baldintza bete gabe geratzen bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da.

12. ARTIKULUA. ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

1.- Dokumentazio guztia aztertu ondotik, egiaztatzen bada eskabidea ez dagoela behar bezala beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari jakinaraziko zaio HAMAR (10) egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta prozedura artxibatu egingo dela 39/2015 Legearen 68. artikuluari jarraikiz emango den ebazpenaren ondoren.

2.- Zuzenketa egiteko eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak, organo instrukziogileak berariaz baimentzen duenean izan ezik.

3.- Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean onuradunek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela; horretarako, HAMAR (10) egun balioduneko epea izango dute, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

4.- Organo instrukziogileak argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

13. ARTIKULUA. INSTRUKZIORAKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAK

1.- Donostia Sustapena izango da laguntza hauen organo instrukziogilea, Donostiako Udalaren erakunde laguntzailea den aldetik.

Organo instrukziogileak ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak, dela administrazio betekizunak zehazteko, dela horien berri izateko eta egiaztatzeke, dela diruz lagun daitezkeen eskabideak balioesteko.

2.- Europako funtsekin ematen diren dirulaguntzen berezitasuna kontuan hartuta, oinarri arautzaile hauek lehiarik gabeko dirulaguntza gisa izapidetuko dira, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62. artikuluan ezartzen den bezala. Haren bidez, ontzat ematen da jarduketak beste proposamen batzuekiko balorazio konparatiborik behar izan gabe finantzatzea, bai eta dirulaguntzak emateko ebazpenak eskabideak aurkezteko ordenaren arabera ematea ere, diruz lagundu daitekeen egoera edo jarduera betetzen dela eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, harik eta deialdian esleitutako aurrekontu kreditua agortu arte edo **2025eko ekainaren 30an deialdia itxi arte**.

3.- Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gehienez ere 6 hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, onuradunek ulertu beharko dute ezetsi egin dela eskabidea.

Tokiko Gobernu Batzarraren berariazko ebazpen arrazoituaren bidez emango edo ukatuko da dirulaguntza, Ekonomiako eta Toki Enpleguko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izateko aukera alde batera utzi gabe.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.- Dirulaguntza bakarra emango da onuradun bakoitzeko. Aurrekontu soberakinik baldin bada edo Donostiako Udalak erabakitzen badu deialdi honetara bideratutako zuzkidura ekonomikoa areagotzea, bigarren laguntza bat eman ahal izango die eskaerak garaiz eta behar bezala egin dituzten eta baldintzak betetzen dituzten onuradunei.

5.-Erreserba-zerrenda bat eratu ahal izango da. Pertsona onuradunetako batek diru-laguntzari uko egiten badio, pertsona onuradunek emandako gastu-zenbateko hautagarria baino txikiagoa justifikatu dutelako edo aurrekontu-igoera gertatzen delako, Donostiako Udalak zerrenda horretan dagoen eskatzaileari diru-laguntza ematea onartu ahal izan dezan, beste deialdi baten beharrik gabe.

Erreserba-zerrenda eskaera-hurrenkeraren arabera ordenatuko da. Hala ere, deialdi honetan dagoeneko dirulaguntza jaso duten erakundeek bigarren proiektuei dagozkien eskaerak beste erakunde batzuen lehen eskaeren atzean kokatuko dira.

6.- Bai onuradunak hautatzeko eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeke prozeduraren instrukzioan parte hartzen duten pertsonak, bai ebazpena emateko eskumena duen organoko pertsonak, interes gatazkarik eza bermatzen duen adierazpen bat sinatu beharko dute. Interes gatazka horiek alderatu egingo dira, kontuan harturik Berreskuratze, Eraldaketa eta

Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkako arriskuaren azterketa sistematikoari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzak.

14. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 € baino handiagoa bada obrako egikaritze kostuaren kasuan, edo 15.000 € baino handiagoa bada ekipamendu ondasunak hornitzearen edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan, erakunde edo pertsona onuradunak **hiru eskaintza eskatu beharko dizkie enpresa hornitzaile desberdinei**. Eskaintza horiek justifikazio agirietan jaso beharko dira, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago hori hornitzen edo ematen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua eskabidea egin baino lehen egin bada.

Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jardueraren diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100erainokoa izan daiteke.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunarentzat ezarritako betebeharrak guztiak exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie.

15. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETAK

1.- Hau da jasotako dirulaguntzen justifikazioak aurkezteko epea:

- **Eskabide egunean proiektua gauzatu daukaten onuradunek HIRU (3) hilabeteko gehieneko epean** justifikatu beharko dituzte laguntzaren xede den jarduketara gauzatu, fakturatu eta ordaindu izana, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

- Eskaeraren datan proiektua gauzatu ez daukaten dirulaguntzen onuradunek **2025eko abenduaren 31a baino lehen** justifikatu beharko dute laguntzaren xede den jarduketara gauzatu, fakturatu eta ordaindu izana.

Oinarri hauetan ezarritako epeak edo edozein betekizun eta baldintza bete ezean, ezetsizat joko da laguntza, eta dagokion ebazpena emango da.

2.- Organo instrukziogileak ofizioz egingo ditu dirulaguntza oinarri arautzaileetan jasotako helburuetarako erabili dela egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak.

3.- Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriari argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak. (9. eta 15. artikulua.)

4.- Laguntzaren ordainketa ez da inoiz izango laguntza ematerakoan onartutako zenbatekoa baino handiagoa.

5.- Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, dokumentazio hau aurkeztu ondoren.

Justifikazio dokumentazioa:

1) Justifikazioaren eranskina.

2) Eranskina: «Amaierako memoria»:

- Emandako dirulaguntzaren esparruan egindako jarduerak, egindako lanen emaitzak jasotzen dituztenak.
- Egindako jarduerak gauzatuta eta operatibo daudela erakusten duten froga fede emaileak: argazkiak, irudiak, webguneak eta abar.

Proba fede emaileek agerian utzi behar dituzte euskarrietan sartu beharreko erreferentziak eta logoak, oinarri hauen 8. artikuluan ezartzen den bezala.

- Efizientzia energetikoan, aurrezkietan eta abarretan izaniko inpaktua positiboa deskribatzea.

3) Eranskina: egindako jarduketaren **as built dokumentazioa**. Gauzatutako jarduketaren *as built* planoak eta instalatutako elementuen fitxa teknikoak emango dira.

4) Eranskina: **Instalazioa legeztatzea**. Industriako lurralde ordezkartzan erantzukizunpeko adierazpena izapidetu izanaren egiaztagiria, aplikatu beharreko araudiak hala eskatzen badu.

5) Eranskina: **Hondakinak kudeatzeko ziurtagiriak**. Obra zibila behar izanez gero, eraikuntza eta eraipen hondakinen kudeaketa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aplikatuz. Hala, justifikatu beharko da betetzen direla dekretu horren 3. artikuluan adierazitako hondakin kudeaketari buruzko helburuak.

Profesional tituludun batek sinatutako obra proiektua behar duten instalazioetarako:

- Hondakinak kudeatzeko azterlana (proiektuaren obra zibileko fasea).
- Hondakinak kudeatzeko plana (obra zibileko fasea).
- Hondakinak kudeatu izanaren ziurtagiria (obra zibilekoa), kudeatzaile baimendu batek emana.
- Obra zibileko hondakinen balorizazio ziurtagiria (kantitatea eta tratamendua).

6) Biomasa instalazioen kasuan:

- a. Emisioak murriztu izana egiaztatzen duen txostena, teknikari eskudunak sinatua.
- b. Erabilera ez-industrialetarako 1 MW baino potentzia txikiagoko biomasa tipologiako eskaeretarako, azkenean instalatutako ekipoak ez badira eskaeran jaso ziren berberak, ekipoaren fabrikatzaileak egiaztagiri bat aurkeztu beharko du behin betiko instalatutako ekipoari loturik, egiaztatzeko

betetzen dituela erabiliko den erregaiarentzako emisioei eta urtaroko efizientzia energetikoari buruzko baldintzak. Baldintza horiek ezingo dira izan indarrean dagoen Ekodiseinuko Erregelamenduan definitutakoak baino laxoagoak —Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamenduan, edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamenduan, segun eta zein dagokion—, nahiz eta erregelamendu horren aplikazio-eremutik kanpo egon.

- c. 1 MW-eko potentzia edo handiagoa eta 50 MW-ekoa baino txikiagoa duten biomasa instalazioetarako, 1042/2017 Errege Dekretuaren II. eranskineko I. taulako II. zatian edo III. eranskinean ezarritako emisioen muga balioak egiaztatu beharko dira. Egiaztapen hori kontrol erakundearen ziurtagiriaren bidez egingo da, autonomia erkidegoetako agintaritza eskudunak ezarritako formatu eta prozedurei jarraikiz.

7) Aerotermia instalazioak:

- a. Instalatu beharreko ekipoa efizientzia energetikoaren irizpideak bete beharko ditu, 2009/125/EE Zuzentarauari jarraikiz (erantsi ekipoa homologatzeko fitxa teknikoa).
- b. Gas hozgarriaren berotze globalerako potentziala (GWP, *Global Warming Potencial*) ez du izan behar 675 baino handiagoa (erantsi gas hozgarriaren fitxa teknikoa).
- c. 12 kW-eko edo gutxiagoko edukiera nominala duten airea-airea bero ponpen kasuan, barrualdeko eta kanpoaldeko potentzia akustikoaren mailak 2009/125/EE Zuzentzua garatzen duen Batzordearen 206/2012 (EB) Erregelamenduan ezarritako mugaren azpitik egon beharko du (erantsi ekipoa homologatzeko fitxa teknikoa).

- 8) Bero ponpen kasuan (aerotermia-geotermia), batez besteko urtaro errendimenduaren balioa ekipoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren bidez egiaztatuko da (eranskin gisa sartu beharko da apartatu honetan zehazten den txostenean) edo, bestela, apartatu honetan zehaztutako txostenean sartuko da balio hori.

9) «Memoria ekonomikoa / Finantza-memoria» eranskina, laguntzaren kostua Excel formatuan egiaztatzen duena.

Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zehazten dituen hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, kasuak hala eskatzen badu, ordainketa data. Era berean, gastuen egiaztapen guztiak jasoko ditu banakatuta, edo, bestela, laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu.

- 10) Dirulaguntzaren xedearen **fakturak**. Fakturak xehatuak izango dira, eta laguntzaren azken hartzailearen izenean eginak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatu ahal izateko. Pertsona edo erakunde onuradunak Europako Next Generation EU funtsek finantzatuak direla aipatu beharko du fakturaren kontzeptuaren hasieran,

«Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU» adierazpenaren bidez.

Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen fakturak, 100 eurotik gorako gastuenak, zergak kanpo utzita.

11) Egindako ordainketen banku egiaztagiria

Ontzat emango dira ordainketa hori aurkeztutako fakturei dagokiela zalantzarik gabe identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiri guztiak. Baliozkotzat joko dira alderdi hauek identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiriak:

- Laguntzaren onuradunak egin duela ordainketa.
- Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena.
- Ordainketen data.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira, eta elektronikoki sinatu, hala eskatzen bada.

Egindako gastua justifikatzeko dokumentazio osagarria eskatu ahal izango da, baita Estatuko edo Europako araudiaren arabera Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitekeen beste edozein egiaztagiri edo txosten ere.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat —osorik edo partzialki— onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuak dituzten kontzeptuekin, justifikatutako jarduketei dagokien zati proportzionala baino ez da ordainduko.

16. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Onuradunek hainbat organok eginiko egiaztapenak bete beharko dituzte, hala nola laguntza eman duen administrazioarenak, Kontu-hartzailetza Nagusiari eta Kontu Auzitegiaren legerian aurreikusitakoei dagozkienak, eta Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoetako Kontu Auzitegiak egin ditzakeenak, baita Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, kasuaren arabera, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenak ere.

2.- Edonola ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzen gaineko jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egin beharko da Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezarritakoaren ildotik, eta nahitaez bete beharko dira, orobat, Europar Batasuneko barne araudiak informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta ebaluazioari loturiko obligazio espezifikoak, bai eta EBko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen diren eginbehar zehatzak ere, betiere haien aplikazioa nahitaezkoa den heinean. Horretarako, dirulaguntzari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko aukera emango zaie organo horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluen arabera.

3.- Funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, laguntzak ematen dituzten administrazioek datuen kategoria harmonizatuak bilduko dituzte formatu elektronikoan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

4.- Onuradunek formatu elektronikoan gorde beharko dituzte justifikazio agiriak eta finantzaketari buruzko gainerako agiriak finantza eragiketaren saldoa ordaintzen denetik bost urteko epean, edo, bestela, hiru urteko epean, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, guztia ere Europako Parlamentuaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Finantza Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Era berean, gorde egingo dituzte auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo lruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapideen gaineko erregistroak eta dokumentuak, harik eta errekurtsu, auzi, erreklamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. lruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko eginbeharra.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko, ontzat joko dira bai jatorrizkoak berak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektroniko hutsean ageri diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak direnean, ez da beharko jatorrizkorik, betiere agiri horiek aplikatzekoak diren legezko baldintzak betetzen badituzte, auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat har daitezten.

17. ARTIKULUA. EZ-BETETZEAREN ONDORIOZKO AMAIERA EDO HALABEHARREZKO AMAIERA. ITZULKETA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

1.- Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta eskatzekoak izango dira berandutze interesak, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, bai eta oinarri hauetan aurreikusitako kasu espezifikoetan ere.

2.- Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira, eta, beraz, premiamendu bidetik eskatu ahal izango dira, itzulketa ez bada egiten zehazten diren epeetan.

3.- Onuradunak itzuli egin beharko ditu jasotako ekarpenaren zenbateko guztiak, baldin eta oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez-betetze astunak eta/edo errepikatuak egiten baditu. Besteak beste, ez-betetze astuntzat eta/edo errepikatutzat joko da aurkeztutako dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopiatzea, plagiatzea edo hirugarrenen eskubideak urratzea aurkeztutako proiektuaren bidez, eta abar.

4.- Era berean, itzultzeko arrazoi izango da ez betetzea DNSH printzipioa eta etiketa klimatikoaren ondoriozko betebeharrak.

5.- Dirua itzultzeko prozedura gauzatzeko, kontuan hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 41. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa, bai eta lege hura garatzen duen Erregelamenduaren 91. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarra izango da itzulketa erabakitze organo eskuduna, Ekonomiako eta Toki Enpleguko zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahal izateko aukera alde batera utzi gabe.

6.- Halaber, aipatutako itzulketa kausaren bat gertatzen bada, onuradunak galdu egingo du jasotzeko dauzkan zenbatekoak kobratzeko eskubidea ere (halakorik balu, behintzat). Era berean, eskatzailea ezin izango da berriro programan aurkeztu.

7.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56. artikuluan eta hurrengoetan eta lege hori garatzeko xedapenetan xedatutakoa beteko da. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaitu egingo dute administrazio bidea.

18. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak, eta berariaz aplikagarritzat joko dira ondorio horietarako, betebeharrak hauei erreferentzia eginez (nahiz eta horietara bakarrik mugatu ez):

- a) Laguntza diruz lagundutako kontzeptuetarako erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduaren eta denboraren barruan.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketak egin ahal izateko, betiere aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.
- d) Laguntza osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzeari.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Egunean edukitzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- g) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- h) Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura instalatzeko indarrean dagoen legeriaren araudia betetzea.

- i) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea gehienez ere 15 egun naturaleko epean.
- j) Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia jakinaraztea.
- k) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
- l) Donostia Sustapenari laguntzea, beharrezkoa izanez gero, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
- m) Oinarri hauetako 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- n) Onuradunak hartu-eman ekonomikoetan baliatzen dituen harremanetarako datuak, jarduera, merkataritza izena, logoa, marka eta bestelako zernahi bereizgarri baliatzeko baimena ematea Donostia Sustapenari, azken horrek enpresen direktorio digitaletan bildu ditzan. Horretarako, onuradunak elementu horiek ustiatzeko erabilera lizentzia ez-esklusibo bat emango dio Donostia Sustapenari, zeinak adierazitako xedeetarako bakarrik baliatuko baitu, erabilera baketsua bermatuz. Horrenbestez, berariaz baimendu beharko da oinarri hauetan hertsiki ezarritakoez bestelako edozein erabilera.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, *mailinga*, megafonia, seinaletika eta abar), sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta abarretan.

Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko hilean), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>)

- p) Erakunde finantzatzaileen erreferentziak eta logoak txertatu beharko dira material, euskarri eta espazio guztietan; hau da, Donostiako Udalarenak, Donostia Sustapenarenak eta Next Generation EUrenak. Eskabidea onartzeko unean, Donostia Sustapenak nahitaez egin beharreko erreferentziak adieraziko dizkio onuradunari, tamaina, xedapena eta abar zehaztuta. Hauek izango dira nahitaezko erreferentzia horiek:

«Donostia, esperientzia enogastronomiko jasangarri eta berritzailea» eta «Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana – Enogastronomia Plan Nazionalea» proiektuaren barruko jarduera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatua eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatua.

donostiasustapena
fomentosansebastián

q) Aplikatzekoa den indarreko araudia errespetatzea, eta, bereziki, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testuategina onesten duena; arau horrek, beste hainba auziren artean, galarazi egiten du pertsonen sexuan oinarrituriko zuzeneko zein zeharkako diskriminazio oro.

r) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio guztia hizkuntza inklusiboa baliatuz egitea eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatzea.

2.- Horretaz gainera, erakunde onuradunek bete egin beharko dituzte Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko betebeharrak, europarrak zein nazionalak. Horretarako, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Diruz lagundutako jarduerak diseinatzean eta gauzatzean, egiten diren jarduerak errespetatu egin beharko dute kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (*Do No Significant Harm*, DNSH). Izan ere, hala xedatzen du Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak, eta hala eskatzen du, orobat, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak eta hura garatzeko araudian xedatutakoak —bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio hori aplikatzeari buruzkoa—, eta bete beharrekoa izango da, orobat, Kontseiluaren Egikaritze Erabakian (Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren Dokumentu Erantsian eskatutakoa ere. Proiektua diseinatzeko, gauzatzeko eta justifikatzeko fase guztietan laguntza jaso dezaketen proiektu guztiek, banaka eta jarduketa bakoitzerako, zorrotz errespetatu beharko dituzte bai ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH ingelesez, *Do No Significant Harm*), bai etiketa klimatikoaren baldintzak.

Bermatu ahal izateko erabat betetzen dela ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoa (2021/02/18ko Kontseiluaren 58. Beteazpen Erabakia, 1. or.), baztertu egiten dira jarraian zehazten diren jarduerak:

- i) Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien ondorengo erabilera barne.
- ii) EBko Isurketa Eskubideen Merkataritza Araubidearen esparruko jarduerak, baldin eta aurreikusten bada eragingo dituzten berotegi efektuko gasen isuriak ez direla egongo dagozkien erreferentzia parametroen azpitik.
- iii) Hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak.

iv) Hondakinen epe luzeko ezabatzea dela eta, ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak.

Indarrean dagoen araudia betetzeak ez du salbuesten kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH, *Do No Significant Harm*) ebaluatzeko beharretik, eta ez du berez justifikatzen jarduera printzipio horri jarraikiz egiten dela ere.

Printzipio hori errespetatzeko betebeharrak orokorraz gainera, kontratistek eta, kasuaren arabera, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen DNSH baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. Era berean, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren 8. apartatuak Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planetarako ezartzen duen moduan (2. azpineurria), kontuan hartu beharko dira ingurumenari kalterik ez egiteko printzipioaren (DNSH, *Do Not Significant Harm*) baldintza espezifikoak.

Klima aldaketa arintzea:

«Eraikinak birgaitzeko, eraikinen energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako jarraibideak hartuko dira kontuan, energia-kontsumo ia nuluko eraikinak izan daitezen, eta, horri esker, nabarmen murriztu ahalko da energia ez-berriztagarri primarioaren kontsumoa».

Klima aldaketara egokitzea:

«Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara egokitu ahal izango dira, eta, horretarako, dena delako eraikinak ahalbidetzen dituen aukeren esparruan ahal diren egokitzapen-soluzioak hartuko dira —eta babestu ere egingo dira, eraikin babestuek direnean—, hala nola landare-estalkiak, olanak, itzalguneak eta abar erabiltzea...».

Ur baliabideen eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria eta babesa:

«Ez da aurreikusten neurria kaltegarria izango denik ur eta itsas baliabideak modu jasangarriak erabiltzeko eta babesteko. Neurriaren helburua da helmuga turistikokoak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea —eta, bereziki, itsas baliabideak—.

Ur aparatuak instalatzen direnean, Batasuneko produktu etiketa bat izango dute.

Obraren inpaktua saihesteko, ingurumena degradatzeko arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin loturik, betiere uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan bati jarraikiz.

Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egitea aurreikusten da, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren zuzentarauak ezarritakoari jarraikiz, eta ur baliabideen erabilera jasangarria egiteko beharrezko arintze neurri guztiak identifikatu eta islatu dira proiektu bakoitza diseinatzean».

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne:

«Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeke prestatuko da

inbertsiootan aurreikusitako jarduketetan sortzen diren eraikuntza eta eraispén hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kanpo utzita); horren barruan sartzen da, orobat, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak baliatzea betelaketarako, hondakinen hierarkiari ez ezik EBko eraikuntza eta eraispén hondakinak kudeatzeko Protokoloak diotenari ere jarraikiz.

(II) Eraikuntzarekin eta eraispénarekin lotutako prozesuetan, operadoreek mugatu egingo dute hondakinen sorrera, EBko eraikuntza eta eraispén hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknika onenak kontuan hartuta, eta gaikako eraispén erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko, eta kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko; horretarako, materialak gaika ezabatuko dira eta, orobat, eraikuntza eta eraispén hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen sistemak baliatuko dira.

(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute, eta ISO 20887 arauari jarraituko zaio eraikinen desmuntatze edo moldagarritasun gaitasuna ebaluatzeko eta nola diseinatuta dauden ikusteko, guztia ere baliabideak erabiltzerakoan efizienteagoak, moldagarriagoak, malguagoak eta desmuntagarriagoak izateko, horrek berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbideatuko baitu».

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola:

«Ez da espero neurri horren ondorioz atmosferara, uretara edo lurzorura egiten diren emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, jarduera turistikoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta».

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzeko:

«Neurriak ez du izango eragin kaltegarririk biodibertsitatean, ezta ekosistemetan ere, haren xedea natura, itsaso eta lur inguruneak babestea baita, Espainiako turismo politikaren bereizgarri gisa».

Birgaitze jarduerak egiten badira biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOk Munduko Ondare gisa izendaturiko tokiak eta biodibertsitatearako funtsezkoak diren eremuak, bai eta babestutako beste eremu batzuk ere) edo haien inguruan, betetzekoak izango dira Habitategi buruzko Zuzentarauaren 6 (3) eta 12. artikulua eta Hegaztien Zuzentarauaren 5. artikulua. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa egingo da, Ingurumen Inpaktuaren Zuzentarauak diotenari jarraikiz.

- b) Espainiako erakundeek eta Europar Batasunaren kontrol jardueren mende jarriko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikulua arabera.
- c) Beren gain hartzen dute dirulaguntza honen esparruan egindako jarduketaren auditoretza pista egokia mantentzea eta dokumentazio euskarriari eusteko betebeharra legez eska daitekeen epearen barruan.

- d) Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezartzen duen moduan emango da, estatuko eta Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritz.
- e) Dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea bost urteko epean, saldoa ordaintzen denetik zenbatzen hasita —edo, ordainketarik ezean, eragiketaren unetik zenbatzen hasita—, edo hiru urteko epean, finantzaketa 60.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- f) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarrita dagoenari jarraikiz, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsen azken onuradunek eta, kasuaren arabera, azpikontratistek aplikatzekoa zaien araudia bete beharko dute —Europakoa zein Espainiakoa—, eta bereziki bete beharko dituzte, orobat, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamendutik eratorritako eginbeharrak honako esparru hauetan: etiketa digitala eta berdea, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa, interes gatazkak saihestea, iruzurra, ustelkeria, finantzaketa bikoitzik ez egotea, estatu laguntzen arloko araudia betetzea, komunikazioa, datuen transferentzia, eta abar. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erantzukizunpeko adierazpenak «Konpromiso deklarazioa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez», bai eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko deklarazioaren eredia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduerak gauzatzeari dagokionez» eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluari dagokiona ere.
- g) Diruz lagundutako ondasunaren titulartasuna izatea, eta xede jakin baterako erabiltzea.
- h) Era berean, gorde egingo dituzte auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapideen gaineko erregistroak eta dokumentuak, harik eta errekurtsu, auzi, erreklamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko eginbeharra. Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko, ontzat joko dira bai jatorrizkoak berak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuak, bai eskuarki onartutako datu euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektroniko hutsean ageri diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak direnean, ez da beharko jatorrizkorik, betiere agiri horiek aplikatzekoak diren legeko baldintzak betetzen badituzte, auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat har daitezten.
- i) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, eta dirulaguntza eman duen administrazioak onartu duen iruzurraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzea. Halaber, erabat errespetatu behar dute iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari buruzko araudia —izan autonomia erkidegokoa, estatukoa edo Europakoa—. Era berean, erabat errespetatu behar dituzte Europar Batasunaren finantza interesak babesteari buruz erakundeek egiten dituzten adierazpenak ere.
- j) Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela jakinarazi beharko dio dirulaguntzak ematen dituen administrazioari, kostu beraren gainean

finantzaketa bikoitzik ez izateko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik, izan erakunde horiek nazionalak, izan nazioartekoak.

- k) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datorrela, eta, beraz, bere gain hartu beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik eratorritako betebeharrak guztiak, bai eta finantzaketa horri aplikatu dakizkikeen Erkidegoko edo nazioarteko gainerako arauetatik eratorritakoak ere. Inguruabar hori erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.
- l) Berriazko baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoari (OLAF), Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen badu, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko, eta haien mende jartzea berreskuratze- eta erresilientzia-planean sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak edo horiek aplikatzen esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak. Era berean, berriaz baimena ematea Batzordeari, OLAFi, Kontu Auzitegiari eta, kasuak hala eskatzen duenean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko 1. apartatuan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.
- m) Identifikazio datuak datu base batean sartzea, Parlamentuaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.
- n) Diruz lagundutako jardueren fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, jarduera bakoitzaren lorpen maila une oro ezagutu ahal izateko. Hirugarrenek garatu beharreko jarduketan kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzen lagunduko dutela ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea, eta hirugarren horiek Berreskuratze Planeko adierazle, mugarri eta helburu egokien balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematea, kasuak hala eskatzen badu.
- o) Inplikaturako Administrazio Publikoen arteko datu lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluekin bat etorritik. Ildo horretan, funtsen azken hartzailearen informazioak eskuragarri egon beharko du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan arabera, eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan garapen gisa.

19. ARTIKULUA. BATERAKO FINANTZAKETA

1.- Laguntza ekonomiko hauek batera finantzatu ahaliko dira Helmugako Jasangarritasun Turistikokoaren Planaren barruan (**DONOSTIA, ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILE BAT**). Jarduera hori «Donostia, esperientzia enogastronomiko jasangarri eta berritzailea» eta «Helmugako Jasangarritasun Turistikokoaren Plana – Enogastronomiako 2022ko Plan Nazionala» proiektuaren barruan dago, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatua eta Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatua da.

20. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

1.- Datuak babesteari buruz indarrean den araudiarekin bat etorriz, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie Donostiako Udalak bilduko dituela laguntzak izapidetu bitartean eta/edo horiek eman ondoren aurkeztutako edozein agiriren eta dagokion eskabidearen bidez ematen dituzten datu pertsonalak. Donostiako Udalak tratatzeko bilduko ditu datu horiek, eta hura izango da tratamenduaren arduraduna. Datuon kudeaketa, berriz, Donostia Sustapenak hartuko du bere gain, eta tratamenduaren eragile gisa jardungo du. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

2.- Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

3.- Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

4.- Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezko izan litekeen denbora guztian.

5.- Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

6.- Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratuko da.

7.- Ukituriko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin ipini beharko da harremanetan (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Zure eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Edonola ere, lehen auzialdian, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko zaio erreklamazioa dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak berariaz onartzen dituela aurreko lerroketan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak, dagokion eskabidea aurkeztuz.

21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNETATIK SALBUESTEA

1.- Eskaerak aurkezteak esan nahi du interesdunek erabat onartzen dituztela oinarriok.

2.- Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak ez dute izango inolako erantzukizunik kontzeptu horiengatik.

Donostian, sinaduran ageri den egunean.